

GAIA: SEXU-JAZARPENAREN ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENAREN KONTRA EGITEKO PRINTZPIOEN ADIERAZPENA ETA ORIENTAZIOAK

Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena genero-diskriminazioaren egoerarik muturrenetariko bi dira, bai lan-eremuan azal daitekeen biolentziaren adierazpen gisa eta bai pertsonen sexuaren arabera tradizioz esleituriko roletan lotura duten botere-harremanen agerpen gisa. Era berean, hainbat eskubideren urraketa agerikoa dira, hala nola duintasun, berdintasun, sexu-askatasun nahiz osotasun fisiko eta moralerako eskubideena; beraz, halako jokabideak prebenitu eta saihestu egin behar dira, eta, gertatuz gero, eten, horrela ez dadin sortu biktimen osasunerako nahi ez den.

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazten du ez duela toleratuko ezertariko sexu-jazarpenerik edo sexuan oinarritutako jazarpenerik, eta behar diren neurriak hartuko dituela halako jarrera eta portaerei aurre egiteko eta haiek desagerrarazteko.

Halaber, Foru Aldundiaren ustez, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena berekin dakarten jarrerak eraso egiten diete berdintasunerako eskubideari eta pertsonen osotasun fisikorako, psikikorako nahiz duintasunerako eskubideari, eta, beraz, ez ditu toleratzen ez onartzen.

Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du irmoki eta gogor aurre eta buru egiteko halako jokabideei, eta berdinean ekiteko, behin gertaturik, jokabideok sor litzaketan arazoei.

Horrez gainera, konpromisoa hartzen du foru-sektore publiko guztian sustatzeko neurriak, eta jazarpenerik ukituriko pertsona guztiei aplikatzeko *Lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpeneri aurre egiteko protokoloa*, baldin eta Aldundiaren zerbitzuen erabiltzaile badira edo haren lantokietan jarduten badute, nahiz eta ez izan Aldundiko kide.

Horiek horrela, langile guztientzat lan-ingurune duin bat sustatzeko eta edukitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak protokolo hori onartu zuen lehen neurri eta jarduketa-esparru modura. Hura osatzeko, beste ekintza, printzipio eta orientazio batzuk onartzen ditu, lanean gerta litezkeen sexu-jazarpeneri eta sexuan oinarritutako jazarpeneri aurre egiteko, eta, halakorik gertatuz gero, zer prozedura aplikatu behar den ezartzeko.

Horrenbestez, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak proposaturik, honako erabaki hau onartzen du Gobernu Kontseiluak:

ERABAKIA

Lehena.-Printzipio gidariak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere jardueraren barruan, funtsezko printzipiotzat du honako hauek errespetatzea: duintasuna, berdintasuna, osotasun fisiko eta morala, diskriminaziorik eza, askatasuna eta lana. Izan ere, denak ageri dira bermaturik hala Europako araudian nola estatu- zein autonomia-araudietan.
2. Hala, bada, Bizkaiko Foru Aldundiko langileek eskubidea dute haien duintasuna osotara errespetatzea, eta organizazioaren barruan urra ez dadin, halakorik ez baitu toleratuko foru-erakundeak.
3. Asmotzat harturik plantillako langile guztiek izatea lan-ingurune bat non errespetatu egiten diren haien duintasuna zein osotasun fisiko eta morala eta ez zaien kalterik eragiten osasunean, eta asmo berean sarturik beren eginkizunak foru-erakundearen egiten dituzten guztiak (zeinahi ere den haien lotura juridikoa), Bizkaiko Foru Aldundiak adierazten du arbuiatu egiten dituela sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen mota guztiak, beren forma eta modalitate guztietan, edozein delarik ere biktima edo jazarlea, eta kontuan hartu gabe zer egoera eta maila hierarkiko duten erakundearen; beraz, beharrezkoak diren prebentzio-neurriak hartuko ditu, eta baita bidezkoak diren lege-neurriak ere.
4. Asmo jakin batekin adierazten du Bizkaiko Foru Aldundiak sexu-jazarpenarekiko eta sexuan oinarritutako jazarpenarekiko tolerantziarik eza: azpimarratzea, batetik, saihestu egin behar direla duintasuna eta askatasuna urratzen duten jokabideak, eta, bestetik, ahalbait arinen esku hartu behar dela halako kasuetan. Izan ere, bi ekintza horiek funtsezkoak dira jazarleen portaerak desagerrarazteko edo, halakorik bada, jazarpenetan inplikaturiko guztien gaineko ondorio larrienak murriztekoak (biktimenak bereziki), bai eta kasuok erakundearen duten inpaktua txikiagotzeko ere.

Bigarrena.-Konpromisoak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du lan-ingurune seguru eta jazarpenik gabeko sortu, eduki eta babesteko, bere esku dituen neurri guztiekin, genero-ikuspegia erantsiz. Lan-ingurune horretan, plantillako langile guztien duintasuna eta sexu-askatasuna errespetatuko dira, eta berdinean errespetatuko dira beren eginkizunak foru-erakundearen egiten dituzten guztienak (zeinahi ere den haien lotura juridikoa).
2. Horrekin batera, konpromiso formala hartzen du sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako arau eta balioen antolamendu-kultura bat ezartzeko, eta adierazten du, oinarritzko printzipio gisa, pertsona guztiek dutela eskubidea —izan emakume zein gizon— tratatu berdina, errespetuzkoa eta duina jasotzeko.

Hirugarrena.-Prebentziozko ekintzak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena ez onartzeko politikari eusteaz gain (azkar eta irmoki zigortuz hala jokatzeko duten pertsonak edo halako jokabideak onartzen dituztenak), prebentzio-kultura bat

sustatuko du bere administrazio-egituretan, bai prestakuntza-, informazio- eta sentsibilizazio-ekintzen bitartez, bai kontzientziazio- eta gaikuntza-ekintzen bitartez.

2. Horretarako, behar diren bitartekoak eta baliabideak jarriko ditu erakundeko langile guztiei prebentzioaren arloko prestakuntza eta informazioa emateko. Zeregin horretan, ardatz gisa hartuko ditu sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari datxezkien arriskuak. Horrez gain, halako egoerak prebenitzeko hartu behar diren neurriak ere ezarriko ditu. Halaber, berariazko prestakuntza-jarduerak sustatuko ditu, jazarpen-egoerak goizik detektatzeko instrumentuak eta halakoetan jarduteko neurriak eskura jartzeko.
3. Informazioa zabaltzeko eta sentsibilizazioa sustatzeko, intranetean jarriko dira erabaki hau eta *Lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa*, eta haietarako sarbidea izango da bai Atarilekuko gune batean eta bai sail bakoitzaren intranetaren hasierako orrietan. Horrez gainera, plantillako langile guztiei bidaliko zaie erabakiaren esteka, posta elektronikoz, eta BFAREN harrera-politikan ere txertatuko da. Horrekin batera, enpresa laguntzaileei ere jakinaraziko zaie testua, horrela haiek zabal dezaten foru-erakundearentzat edo haren instalazioetan lan egiten duten beren langileen artean.
4. Berariazko postontzi bat jarriko da, sarbidea izango duena bai Atarilekuko gune batetik bai sail bakoitzaren intranetaren hasierako orrietatik, eta plantillako langile guztiei helaraziko zaie haren esteka (aurreko puntuan aipatutakoekin batera). BFAREN harrera-politikan ere txertatuko da esteka hori.
5. Jarduketa-prozedura hobetzeko, etengabe berrikusiko da protokoloa, kontuan harturik zer hobekuntza detektatzen den protokoloa aplikatzen den kasuetan.
6. Bizkaiko Foru Aldundiak eskatu nahi die bai sozietate publikoei bai enpresa-erakunde publiko foralei zein foru-fundazioei urtebetean berengana ditzatela, edo nork bere inguruabarretara egokitu, hala protokoloa nola martxan jarri beharreko prebentzio-neurriak.